EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**JAUN/ANDRE HORI:**

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Vitoria-Gasteizen, Lehendakaritzako egoitzan, **2023ko OTSAILAREN 14an,** 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da

**EXCMO\A. SR.\A:**

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakaritza, a las 10:00 horas del día **14 DE FEBRERO DE 2023**, con el siguiente

| GAI-ZERRENDA | | ORDEN DEL DÍA |
|---|---|---|
| Aurreko bileraren akta irakurri, eta hala badagokio, onartu. | 1 | Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior. |
| LEHENDAKARITZA | | LEHENDAKARITZA |
| Erabaki-proposamena, 2023. urterako Urteko Araugintza Plana onartzekoa. | 2 | Propuesta de Acuerdo por el que se aprueba el Plan Anual Normativo para el año 2023. |
| LAN ETA ENPLEGU SAILA | | DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO |
| Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzko Dekretua aldatzen duena. | 3 | Proyecto de Decreto de modificación del Decreto que regula el registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos de trabajo del País Vasco. |
| GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA | | DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO |
| Erabaki-proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien 2023. urterako igoerak onartzekoa. | 4 | Propuesta de Acuerdo por el que se aprueban los incrementos, para el año 2023, de las retribuciones del personal al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. |

| | | |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, Bilboko Lehen Auzialdiko 11. zenbakiko Epaitegiaren 1412/2022 prozedura arrunt zibilean partzialki amore emateko baimena ematekoa. Prozedura horren xedea da jabaritzat deklaratzea Zorrotza-Bilboko Zazpilanda Taldeko 3. atariko bigarren solairuko eskuinean dagoen etxebizitza. | 5 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza el allanamiento parcial en el Procedimiento Ordinario Civil 1412/2022, del Juzgado de Primera Instancia nº 11 de Bilbao, que tiene por objeto la declaración de dominio de la vivienda sita en la planta segunda, mano derecha, del Portal nº 3 del Grupo Zazpilanda, en Zorroza-Bilbao. |
| Erabaki-proposamena, Bilboko Lehen Auzialdiko 11. zenbakiko Epaitegiaren 1420/2022 prozedura arrunt zibilean partzialki amore emateko baimena ematekoa. Prozedura horren xedea da jabaritzat deklaratzea Zorrotza-Bilboko Zazpilanda taldeko 3. atariko hirugarren solairuko eskuinean dagoen etxebizitza. | 6 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza el allanamiento parcial en el Procedimiento Ordinario Civil 1420/2022, del Juzgado de Primera Instancia nº 11 de Bilbao, que tiene por objeto la declaración de dominio de la vivienda sita en la planta tercera, mano derecha, del Portal nº 3 del Grupo Zazpilanda, en Zorroza-Bilbao. |
| Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin. | 7 | Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno. |
| EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA | | DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE |
| Erabaki-proposamena, Patente eta Marken Espainiako Bulegoa OArekin hitzarmen bat izenpetzeko baimena ematekoa, industria-jabetzaren arloan lankidetza-esparru bat ezartzeko. | 8 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con la Oficina Española de Patentes y Marcas, O.A., para establecer un marco de cooperación en materia de propiedad industrial. |
| EKONOMIA ETA OGASUN SAILA | | DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA |
| Dekretu-proiektua, 7111 - Nekazaritza eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena programan 36.178.176,00 euroko kredituak gaitzeko dena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2023ko ekitaldirako aurrekontuko 9311 - Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak programan izandako sarrerengatik. | 9 | Proyecto de Decreto, por el que se habilitan créditos en el Programa 7111 - Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral, por ingresos en el Programa 9311 - Relaciones Financieras con la Unión Europea, del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2023, por importe de 36.178.176,00 euros. |
| Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Oiongo Udalak adostutako Foru kaleko 11. zenbakian dagoen lurzatiaren eta bertan dagoen eraikinaren doako lagapena onartzeko, bertan osasun-zentro berri bat eraikitze aldera. | 10 | Propuesta de Acuerdo de autorización para la aceptación de la cesión gratuita de la parcela sita en calle Fueros 11 y el edificio que en ella se ubica, para la construcción de un nuevo centro de salud, acordada por el Ayuntamiento Oyón-Oion. |

## HEZKUNTZA SAILA / DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

11 Dekretu-proiektua, Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutua (iTlent) sortzekoa eta haren lanpostuen zerrenda onartzekoa.

Proyecto de Decreto por el que se crea el Instituto Vasco del Talento en la Formación Profesional (iTlent), y se aprueba su relación de puestos de trabajo.

12 Erabaki-proposamena, Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana onartu dela jakinaraztekoa.

Propuesta de Acuerdo por la que se comunica la aprobación del VI Plan Vasco de Formación Profesional.

13 Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal-jabetzako higiezinetan jolas-eremuak sortzeko edo hobetzeko obren gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia (Jolastoki inklusiboak 2023) egiten duen Agindua finantzatzeko.

Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para financiar la Orden por la que se convocan ayudas a la financiación de los gastos de ejecución de obras para la creación o mejora de zonas de recreo en inmuebles de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la administración educativa (Patios Inclusivos 2023).

## LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA / DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

14 Erabaki-proposamena, Eako Udalarekin hitzarmena izenpetzeko baimena ematekoa, Eako udalerrian, Ea 02 Air_Ea-Ea02 eremuan, alokairuko babes sozialeko etxebizitzak sustatzeko.

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción del convenio con el Ayuntamiento de Ea, sobre promoción de viviendas de protección social en alquiler en el ámbito Ea 02 Air_Ea-Ea02, en el término municipal de Ea.

## OSASUN SAILA / DEPARTAMENTO DE SALUD

15 Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua dakarren kontratu bat baimentzekoa. Kontratuaren xedea: Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistemaren erabiltzaileentzako etxeko arnasketa-terapien eta aireztapen lagundurako beste teknika batzuen zerbitzuak (104/2023-PS Espedientea).

Propuesta de Acuerdo de autorización de un contrato de gasto superior a 5.000.000 de euros, que tiene por objeto los servicios de terapias respiratorias domiciliarias y otras técnicas de ventilación asistida para personas usuarias del sistema sanitario de Euskadi (Expediente 104/2023-PS).

16 Erabaki-proposamena, Uraren Euskal Agentziarekin (URA) sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena aintzat hartzekoa, kontsumo publikoko uren kalitatea eta bainatzeko uren kalitatea babesteari dagokionez.

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del convenio de colaboración a suscribir con la Agencia Vasca del Agua (URA), en materia de protección de la calidad de las aguas de consumo público y la calidad de las aguas de baño.

17

Erabaki-proposamena, larrialdi-kontratu hau aintzat hartzekoa: Euskal Autonomia Erkidegoko zentro soziosanitarioetan prestazio farmazeutikoa jasotzeko eskubidea duten pazienteei gernu-ihesaren xurgatzaileak hornitzekoa eta banatzekoa (86/2023-S esp.).

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del contrato de emergencia para el suministro y distribución de absorbentes de incontinencia urinaria a pacientes con derecho a prestación farmacéutica, en los centros socio-sanitarios de la Comunidad Autónoma de Euskadi (expte.86/2023-S).

## BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

18

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, 2023ko ekitaldi ekonomikoan Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko bakoitzeko abokatuen eta prokuradoreen elkargoei konpentsazio ekonomikoa emateko, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak xedatutako abokatu-laguntza eta defentsa eta ordezkaritzako nahitaezko zerbitzuak emateagatik (guardiako txanda, ofiziokoa, eta funtzionamendu-gastuak) eta espetxeetako lege-laguntzaren txandak egiteagatik.

Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, destinado a compensar económicamente, en el ejercicio económico 2023, a los colegios de la abogacía y de la procura de cada Territorio Histórico de la Comunidad Autónoma de Euskadi por la prestación de los servicios obligatorios de asistencia letrada y de defensa y representación gratuitas que la Ley 1/1996, de 10 de enero, de asistencia jurídica gratuita les encomienda (turno de guardia, de oficio, y gastos de funcionamiento), y el turno de asistencia legal penitenciaria.

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

19

Erabaki-proposamena, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren arteko hitzarmenaren aldaketa (ez-funtsezkoa) aintzat hartzekoa. Hitzarmen horren bidez, dirulaguntza izendun bat bideratzen da, gaztelania ez den hizkuntza koofizialean zinema- eta ikus-entzunezko industriaren ekoizpena, banaketa, erakusketa eta sustapena bultzatzeko 2022an.

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento de la modificación no sustancial del Convenio con el Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales, por el que se canaliza una subvención nominativa para fomentar la producción, distribución, exhibición y promoción de la industria cinematográfica y audiovisual en lengua cooficial distinta al castellano, en el año 2022.

20

Akordio proposamena, "MUNDUBIRA 500: Elkano Fundazioa" entitateari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, fundazioa iraungitzearen ondorioz sortutako gastuak estaltzeko (aurrekontua likidatzea-ixtea), 2023. urtean.

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la entidad Mundubira 500: Elkano Fundazioa para cubrir los gastos derivados de la extinción de la fundación (liquidación-cierre del presupuesto) durante el año 2023.

## IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK

## NOMBRAMIENTOS Y CESES

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 10a. En Vitoria-Gasteiz, 10 de febrero de 2023.

**SIN./FDO.: GARAMENDI LANDA, OLATZ.**
**GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA JAURLARITZAREN IDAZKARIA**
**CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL GOBIERNO**